

ZARAUTZ / Liburu bilketa Sanz Enean apirilean zehar Sahara, Kuba eta Honduras-era bidaltzeko

ZARAUTZ. DV. Hilabete honetan zehar eta Sanz Eneako liburutegian Hegoaldeko, hau da, Kuba, Honduras ... eta Sahararako kanpainarako liburu bilketa burutzen ari da.

ELAN-Euskadi, Hegolan eta Zaharautz gobernuz kanpoko erakundeek (GKE, ONG), aurten ere, liburua protagonista duen hilabete honetan, liburu bilketari ekin diote. Hori dela eta, Sanz Enea liburutegiak bilketa horretan parte hartzen du eta, bildutakoa aipatutako GKEren artean banatuko du. Beraz, liburuak, zein cd, vhs, dvd-ekin beste herriko biztanleei laguntzeko prest dagoenak bai liburu, baita cd, dvd eta vhs-ak ere liburutegira eramaterik besterik ez du.

Bestalde, hilaren 23an Pello Añorgaren eskutik ipuin kontaketa izango da haur liburutegian.